

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Abenduaren 15eko 689/2025 Foru Agindua. Onestea akatsak zuzentzea bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 3ko 662/2025 Foru Aginduan, zeinaren bidez eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinarazteko 848 eredia onetsi baitzen eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura ezarri baitziren

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 3ko 662/2025 Foru Aginduaren bidez, eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinarazteko 848 eredia onetsi zen, eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura ezarri ziren.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan dio administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzaketela, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

848 ereduaren gaztelaniazko jarraibideetan idazkera akats bat egin dela ikusi da, zati bat euskaraz idatzi baita, eta, beraz, dagokion zuzenketa egin behar da.

Horrenbestez, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Akats hauek zuzentzea, jarraibideen gaztelaniazko testuan, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 3ko 662/2025 Foru Aginduan, zeinaren bidez eragiketen bolumenaren zenbatekoa jakinarazteko 848 eredia onetsi baitzen. Aldaketak honako zati hauetan egin behar dira:

- «Ejercicio» izeneko 1. ataleko bigarren paragrafoan.
- «Declaración sustitutiva» izeneko 4. ataleko laugarren paragrafoan.
- «Volumen de operaciones» izeneko 5. ataleko hirugarren paragrafoan.

1. «Ejercicio» izeneko lehenengo atalean, honako hau dio:

«Seleccionar el ejercicio fiscal del Impuesto sobre Actividades Económicas al que corresponde la declaración.

Periodicidad anual. 848 eredia aitortenari dagokion urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra bitartean aurkeztu behar da».

Eta hau esan behar du:

«EJERCICIO: Seleccionar el ejercicio fiscal del Impuesto sobre Actividades Económicas al que corresponde la declaración.

Periodicidad anual. La presentación del modelo 848 se realizará del 1 de enero al 14 de febrero del año al que se refiera la declaración».

2. Laugarren ataleko, «Casilla (930) PRESENTACIÓN FUERA DE PLAZO POR REQUERIMIENTO» testua dagoen tokian, honako hau dio:

«Casilla (930) PRESENTACIÓN FUERA DE PLAZO POR REQUERIMIENTO: Idatziko da ea aurkezpenaren helburua errekerimendu bati erantzutea den».

Eta hau esan behar du:

«Casilla (930) PRESENTACIÓN FUERA DE PLAZO POR REQUERIMIENTO: Se consignará si la presentación tiene por objeto atender un requerimiento».

3. Bosgarren atalean, «Casilla (5) EJERCICIO FISCAL» testua dagoen tokian, honako hau dio:

«Casilla (5) EJERCICIO FISCAL. Hace referencia al periodo impositivo que se declara en la autoliquidación del Impuesto correspondiente cuyo plazo de presentación ha finalizado el año anterior al del devengo del Impuesto de Actividades Económicas.

Adibidez, "X JEZ" ekitaldian aurkeztu beharreko jakinarazpenean, "X-1" ekitaldian aurkeztutako autoliquidazioari dagokion eragiketa bolumenaren zenbatekoa idatziko da, zeina normalean "X-2" zergaldiari egokituko baitzaio».

Eta hau esan behar du:

«Casilla (5) EJERCICIO FISCAL. Hace referencia al periodo impositivo que se declara en la autoliquidación del Impuesto correspondiente cuyo plazo de presentación ha finalizado el año anterior al del devengo del Impuesto de Actividades Económicas.

Por ejemplo, para la comunicación a presentar en el Ejercicio "IAE X", se consignará el importe del volumen de operaciones correspondiente a la autoliquidación presentada en el ejercicio "X-1", el cual, normalmente, será el referido al periodo impositivo "X-2"».

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu ondorengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 15a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA